

ARARTEKO



2005^{eko} martxoa

7.zenb.

EUSKO LEGEBILTZARRARI TXOSTENA 2004-LABURPENA

IÑIGO LAMARCA ARARTEKO BERRI AUKERATU DU EUSKO LEGEBILTZARRAK

Ekainaren 18an Eusko Legebiltzarrak Iñigo Lamarca Iturbe izendatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Ararteko. Lamarca Jaurilaritzan agintari dauden alderdiek aurkeztu zuten, eta legebiltzarkideen gehiengo handiaren babesa jaso zuten; inork ez zuen haren aurkako botorik eman, gainera. Iñigo Lamarca Ararteko izendatzeak erakundearen lau urteko behin behineko egoerari amaiera eman zion. Tarte horretan, alderdi politikoek ez zuten ordezkorik adosterik lortu, Legebiltzarraren hiru bosten behar baitira Ararteko nor izango den onesteko. Beraz, Xabier Markiegiaren behin-behineko ordezkoa aurkitzea lortu da, Mertxe Agundez 2000. urtetik behin-behinekoan haren zereginetan aritu ondoren. Lamarca ekainaren 25ean jabetu zen karguaz Legebiltzarrean, eta zeregin berrian leialtasunez, legearen ildotik, eta funtsezko beste printzipio batzuetan, hala nola, zintzotasunean, pertsonen duintasunaren errespetuan eta inpartzialtasunean oinarrituz aritzeko konpromisoa hartu zuen. Karguaz jabetzeko ekitaldian, Arartekoak Juan María Atutxa Legebiltzarreko burua, mahaikideak eta karguan bera baino lehenago izan diren Juan San Martín, Xabier Markiegi eta Mertxe Agundez izan zituen alboan, baita ahaide eta lagun ugari ere.



Iñigo Lamarca, Mertxe Agundez, Juan San Martín eta Xabier Markiegi

ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERA KOPURUTAN

• 2004an zehar 4.056 kontsultari erantzun diegu; telefonoz edo gure bulegoren batera etorri zaizkigun pertsonen aurrez aurre.

• Arreta zuzeneko hiru bulegoetara egin zaizkigun bisitak, guztira, 2.503 izan dira eta, horietatik, % 26,45 kexetan gauzatu dira.

• Internet herritarren kexak aurkezteko baliatzen dituen bideetako bat bihurtu da. Izan ere, kexetatik % 27,04 erakundearen web orrialdearen bidez (www.ararteko.net) jaso ditugu.

• Kexen kopuruari dagokionez, Arartekoarenean, denera, 1.531 kexa jarri dira. % 15,09 kolektiboren baten izenean aurkeztu dira.

• Urtean zehar ofiziozko 33 espediente abiarazi ditugu.

• Tramitatutako kexen % 50 udalen kontra zuzendu dira, % 34,96 Eusko Jaurilaritzaren jardueren kontra, eta % 11,21 foru administrazioen kontra.

• Arartekoaren esku-hartzea oso ontzat edo nahikoa ontzat jotzen dute galde-sortari erantzun dioten gehienek (% 82,98k).


• Aztertu ondoren irregulartasunen bat zegoela iritzi zaien erreklamazioetatik % 90,83an ukitutako administrazioak jarduera zuzendu du.

ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU-HARTZEA ZENBAITERAINO IZAN DEN ERAGINKORRA

KONPONDU GABEKO IRREGULARTASUNA
(gomendioa ez da onartu)
% 9,17



ERREKLAMATZAILEEK ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUERAZ EGINDUTEN BALORAZIOA



2004

DATU OROKORRAK

2004. urtean zehar 4.056 kontsultari jaramon egin diegu, erakundera telefonoz zuzendu diren edo gure bulegoetara etorri diren pertsonenak. Arartekoaren zuzeneko arretarako bulegoetan guztira 2.503 izan ditugu; bisita horietatik 662 kexetan gauzatu dira, % 26,45, hain zuzen, eta horrek agerian uzten du arreta zuzeneko bulegoetan egiten den aurretiazko lana, arrazoi batengatik edo beste batengatik, Arartekoak ikertzerik izango ez duen erreklamazioak onartzen ez direlako.

2004an, guztira, Arartekoari 1.531 kexa aurkeztu zaizkio, batzuk hainbat sinaduraren babesaz, gainera. Kexetatik % 15,09 kolektiboek aurkeztu dituzte.

Internet herritarren kexak aurkezteko baliatzen dituen bideetako bat bihurtu da. Izan ere, kexen % 27,04 erakundearen web orrialdearen bidez (www.ararteko.net) jaso ditugu.

Urtean zehar, gainera, ofiziozko 33 espediente abiarazi ditugu. 2004an tramitatzen amaitu zirenei dagokienez, aztertutako norbanako zein kolektiboek kexetatik % 33,01ean irregularitasunen bat zegoela iritzi zaio. Ukitutako administrazioak, kexa eragin duen jarduera aztertu ondoren,

irregularitasunen bat zegoela iritzitako erreklamazioetatik % 90,83tan zuzendu du. Kasurik gehienetan (% 96,94) ez da gomendiorik egin behar izan.

Kexek zein arloekin zerikusia daukaten kontuan hartzen badugu, 2004an aurreko urtearen aldean erreklamazioen kopuruak zerbait aldatu direla ikusiko dugu. Hartara, Hirigintza eta Etxebizitza arloko kexak nabarmen gehitu dira, batez ere, Donostiako udal mugartean establezimendu desberdinetan egindako erreforma obretan irisgarritasun araudia bete ez delako jarri diren erreklamazioen kopuruaren ondorioz.


2004ko erreklamazio kopururik handiena Tokiko Administrazioa joan da, guztira tramitatutako kexen artean % 50a, zehazki. Eusko Jaurlaritzaren kontrako kexak % 34,96 izan dira eta Foru Administrazioaren jarduerak, ordea, % 11,21ean izan dira hizpide. Ohartarazi behar dugu espedienteetan inplikaturako administrazioak ikertu arren, horrek ez duela legea urratu dutenik esan nahi, beren jardueraren bat kexa-gai izan dela soilik baizik.

Bizkaiko udalentzat izan dira guztirako kexetatik % 44,31; Gipuzkoakoetara % 38,61 joan dira eta, Arabara % 13,70.


Kexarik aurkeztu duten pertsonen nahi

badute eta izenik eman barik betetzen duten galde-sortak adierazten duenez, Arartekoaren esku hartzea oso ontzat edo nahikoa ontzat jotzen da (erantzun dutenetatik % 82,98k), baita arazoa konpondu ez zaien edo beren kontra ebatzi denen artean ere. Ia % 88ak, gainera, administrazioaren batekin arazorik izatekotan, Arartekora jotzeko gomendatuko lioke jendeari.


ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA JARDUERA ALORREN ARABERA



ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERA




ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-2004)




KEXAGILEAK ETA KEXAK AURKEZTEKO ERA


JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERREKLAMAZIAILEEN EZAUGARRIEN ARABERA



JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA



JASOTAKO KEXEN BANAKETA AURKEZTEKO MODUAREN ARABERA



IÑIGO LAMARCA ITURBE. ARARTEKOA

Iñigo Lamarca Iturbe Donostian jaio zen, 1959ko uztailaren 13an. Oinarrizko ikasketak eta batxilergoa Santo Tomas Lizeoa ikastolan egin zituen, eta Euskal Herriko Unibertsitatean Zuzenbidean lizentziaduna da. Euskal Herriko Unibertsitatean, Donostiako Zuzenbide Fakultatean Konstituzio-Zuzenbideko irakasle aritu zen, Gurutz Jauregi Katedradunaren zuzendaritzapean. Hainbat ikerketa lan egin zituen autonomia mailako zuzenbideari buruz eta, batez ere, euskal lurralde historikoei buruz. Eduardo Virgala katedradunarekin batera, 1991n editatu zen *Derecho autonómico vasco* liburuaren egile da. 1994an, plazarako oposizioak atera eta gero, Gipuzkoako Batzar Nagusietako letradu sartu zen. Lamarca joera homosexualeko pertsonen eskubideen defentsan lan eginagatik nabarmendu da. 1997an Gehitu (Euskal Herriko gay eta lesbianen elkarte) eratu zutenetako bat izan zen. Elkarteko buru zelarrik, Donostiako Udalak 2004an herritar-merituaren domina,



(Iñigo Lamarca, Arartekoa)

aho batez, Gehitu-ri eman zion. 1999an euskaraz argitaratu zen *Gay nauzu* liburuaren egilea da. Zenbait hedabidetako kolaboratzaile izan da, hala nola, Euskaldunon Egunkaria, Radio Euskadi, Euskadi Irratia edo Irutxulokoa. Iñigo Lamarca aktiboki lan egin du euskal kulturaren alorrean. Zeruko Argia

aldizkariaren kolaboratzaile izan zen (1976-1978) eta euskara irakaslea Donostiako Rikardo Arregi euskaltegian (1982-1983). EHUKo Zuzenbide Fakultateko euskararen normalizaziorako planaren sorkuntzan parte hartu zuen.

“Zer da Arartekoa? Zer egiten du? Ararteko izendatu ninduenetik hona, sarritan egin dizkidate horrelako galderak. Nire ustez, erakunde honetaz dagoen ezagutza urriak azalpen logikoa du: honelako erakundeak berriberriak dira demokrazien egitura instituzionaletan. Herri defentsariaren figura Suedian sortu zen 1809an, “Ombudsman” izenarekin, baina joan den mendeko erdi aldera arte ez zen Europako gainerako herrialdeetara

zabandu. Euskadin, zehazki, 1989an jarri zen martxan erakunde hau, lehenengo Arartekoa aukeratu zenean: Juan San Martín. Ez nuke zuzen jokatu ez banu aipatuko nire aurrekoek (Juan San Martín, Xabier Markiegi eta Mertxe Agúndezek) egin duten lan eskerga eta bikaina. Beraz, neure eskerrona adierazi nahi diet aurreko arartekoei, egin duten lanarengatik. Arartekoaren eginkizunak honako hauek dira batik bat: kexak tramitatzea, txosten bereziak

egitea eta giza eskubideekiko begirunea bezalako baloreak indartzeko jarduerak burutzea. Azpimarratu nahi dut beharrezkoa dela kontzientziak asintzea, egunez egun denon artean errespetatzeko baloreak eraiki ditzagun. Horrela, ahalegin handia egin behar dugu euskal gizarteak ETaren aurkako aldarria egin dezan, desager dadila exijituz. Era berean, herriaginteei beren jardueretan pertsonen eskubideak zorrotz errespetatu ditzatela exijitu behar diegu.”

JULIA HERNÁNDEZ VALLES. ARARTEKOAREN ONDOKOA

Julia Hernández Valles 1961eko abenduaren 26an jaio zen; Cacereseko Hoyos herrikoa da. Zuzenbidean lizentziatu zen Salamancako Unibertsitatean eta Kriminologian Euskal Herrikoan; zerga zuzenbidean, lan aholkularitzan eta gizarte segurantzaren diplomatu ere bada. Gipuzkoako Abokatuen Bazkunean 1989tik kolegiatuta dagoen abokatu, Abogados Asociados bulegoaren fundatzaileetako bat izan zen; zerga, lan eta kontularitza adarrak jorratzen dituzte. Gipuzkoako Batzar Nagusietan batzarkide izan zen, PSE-EEren aldetik, eta Errenteriako udaleko zinegotzi 1998tik, non Gizarte Ongizate eta Osasun arloko zinegotzi eskuordetua eta Udaleko Zahar-Etxeko Patronatuko buru ere izan zen. Arartekoak

proposatuta, Julia Hernández haren ondoko karguaz uztailaren 5ean jabetu zen, Ararteko erakundearen egoitza nagusian, besteak beste,

Eusko Legebiltzarreko buru den Juan María Atutxa bertan zelarrik egin zen ekitaldian.



(Julia Hernández, Arartekoaren ondokoa)

GASTEIZKO UDALAREN HAUR ESKOLEN ZERBITZUAREN BERRANTOLAKETA

Ararteko erakundeak, hezitzaile talde batek eskatuta, Gasteizko Udalak udalaren haur eskolen zerbitzua berrantolatzeaz hartutako erabakiak aztertu zituen. Zehazki, honako erabaki hauek aztertu ziren: zerbitzua berrantolatzen zuen dekretua; Gobernu Batzordearen erabakia, lanpostuen zerrenda (LZ) aldatzen duena; eta haur hezkuntzan espezializatutako teknikariak kontratatzeko zerrenda sortzeko hautaketa-prozeduraren deialdia. Erakunde honen iritziz, legezkoitasunaren ikuspegitik antolaketa berria zuzena zen, baina LZ aldatzen zuen erabakia baliorik gabekoa zen, funtsezko alderdi formal batzuk aintzat hartu ez zituelako. Bestalde, teknikariak kontratatzeko eraturako zerrenda bere horretan uzteko, justifikatu egin beharko litzateke zerrendan sartzeko baldintza gisa egiaztatutako aurretiazko esperientziarako ezarrita dagoen denbora-muga, baita txandean sistemaren bitartez hautagai tituludunen alde ezarritako lehentasuna ere. Ondorio horiek guztiak aztertu eta gero, Ararteko erakundeak zera gomendatu zion Gasteizko Udalarari: baliorik gabe utz zitzala 2004ko irailaren 1etik aurrera indarrean jartzeko agindu zituen langileen

lanpostu-uzteak eta berraxikitzeak; haur eskolen LZ berria onar zezala, bere proposamena langileen ordezkariekin negoziatuz eta Udalbatzaren onespena izanda; eta balora eta azter zezala ordurako burutu ziren egintza eta

izapide batzuk adibidez, haur hezkuntzako teknikariak kontratatzeko zerrenda berriari eta langile berrien izendapenei dagozkienak bere horretan uzteko ala ez uzteko aukera.



(Deiaren argazkia)

ERRAUSTEGIEN ONDORIOEN GAINEKO GIZARTE EZTABAIDA

Hainbat kolektibo etorri zaizkigu Arartekora hondakinak kudeatzeko sistema modura erraustegiak erabiltzearen aurka daudela adieraziz, izugarri kutsagarriak direlako eta herritarren osasunerako arriskua ekar dezaketelako. Hondakinak kudeatzeko zer eredu erabiliko den eta behar diren azpiegiturak zehazki non lekutuko diren erabakitzea udalaren esku dago. Lege antolamenduak udalei eskumen zabala ematen die hiriko hondakin solidoak kudeatzeko jarduerak planifikatzeko. Halakoetan, gure erakundeak administrazio-organo eskudunak erabakia hartzeko prozedura egokia erabili duen egiaztatutako behar du -berezikiki jendaurreko informazioaren tramitea bete den eta egindako alegazioei erantzun zaien-, baita

kontuan hartu beharreko zehaztapen tekniko eta juridiko guztiak baloratu diren ere. Ezin ditugu egokiera-arrazoiak zalantzan jarri, gogoeta horiek udalaren organo eskudunek berez dituzten ahalmenen esparruan sartzen baitira. Aztertu ditugun kasuetan ez dugu, hartutako erabakietan, administrazio prozesurik baliorik gabe utziko lukeen inolako irregulartasun juridikoren zantzurik aurkitu. Alabaina, gure erakundeak aldarrikatu diren eskubideak babestu behar ditu, kasu honetan, erraustegiaren aurka daudenean aldarrikatu dituztenak, besteak beste, ingurumen egokia eta osasuna izateko eskubidea. Erraustegiak ezartzeko erabakiak gizarteak sortu duen gaitzespena eta, batez ere, kezka ikusita, erakunde honek botere publikoari eskubide horiek behar bezala

zainduko direla bermatzeko beharrezko informazio eta babes neurri guztiak aktibatze eskatu die. Horrela, alde batetik, instalazioaren eraikuntza eta funtzionamenduaren gaineko informazio guztia beti eskueran izan dadin behar diren bitartekoak artikulatzeko eskatu diegu, eta, bestetik, beren jardueretan hiriko hondakin solidoak kudeatzeko ahalik eta gutxien kutsatzen duten bideetatik jotzeko printzipioari segi diezaiotela. Horretarako ezinbestekoa da inplikaturik dauden administrazioek hondakinak kudeatzeko orduan prebentzioa, birziklatzea eta berrerabiltzea ahalik eta gehien zabaltzera zuzendutako politikaren aldeko apustua egin dezaten, erraustegiak helburu horiek lortzea murriztu gabe.

IRAKASLEEN EGONKORTASUN-HITZARMEN BERRIA 2004-2006

Arartekoak kexa asko jaso ditu 2004-2006rako irakasleen egonkortasun-hitzarmen berriaren inguruan. Hezkuntza Sailak akordioa justifikatzeko, hezkuntza-sistemak irakaskuntza-beharrei erantzun behar direla eta, horrekin batera, irakasleek bi hizkuntzetan trebatuta egon behar dutela argudiatzen ditu. Gainera, hitzarmen berri hau ez dela administrazioak bere kabuz hartutako erabakiaren ondorioa, irakaskuntzaren alorreko ordezkari sindikalen gehiengo kualifikatuarekin negoziazio kolektiboaren esparruan aurretiaz iritsitako akordioaren erantzun eta ondorioa baizik. Zenbait sindikatuk epaitegietan bideratu dituzten ekimenak direla eta, Arartekoak ez du hitzarmenaren edukia baloratzerik izan. Azken batean, justizia auzitegiak izango dira egonkortasun-hitzarmen berri hori legezkontasunaren parametroaren arabera epaituko dutenak. Alabaina, Ararteko erakundeak, EAEko administrazio publikoan jarduerak fiskalizatzeko duen zereginean, ikuspegi zabalagotik, herritarren interesen aldeko irtenbiderik egokienak har daitezkeen errazten saiatu behar du. Ulertzen dugu sail horrek

kalitatezko hezkuntza sistema ziurtatu behar duela argudiatzea, bereziki EAEko ikasleen hizkuntz eskubideei dagokienez. Are gehiago, Arartekoa bezalako erakunde eskubide-bermatzaile batek hezkuntza sistemaren hizkuntz normalizazioa bermatzeko interes horrekin guztiz bat etorri behar du, ezinbestean. Baina bidezkoa iruditzen zaigu honako hau azpimarratzea: alor publikoan, hizkuntza normalizatzen lagundu duten sektoreen artean bakarren bat nabarmendu baldin bada, modu berezian nabarmendu ere, hori hezkuntza-sektorea izan da, batez ere irakasleen ekarpen, dedikazio eta ahaleginari esker. Horregatik, Hezkuntza Sailera jo behar genuela iritzi diogu, akordioa sinatu duten sindikatuarekin batera, hezkuntza-sisteman bestelako hizkuntz eskakizunik izan lezaketen behar berriak bideragarriak izan daitezkeen baloratzeko aukera aintzat har dezaten, baita irakasle horiei aldi baterako enplegua berreskuratzen edo finkatzen lagun liezaieketen trebakuntza edo hizkuntz gaitasun ahalbide guztiak sustatzeko aukera ere.

HAINBAT ARAZO GAZTE TALDE BATEK BILTOKI GISA ERABILTZEN ZITUEN LOKALETAN SORTUTAKO ZARATEN ONDORIOZ

Pasaiako herritar batek laguntza eskatu zigun zenbait gaztek haren etxetik hurbil zeuden bi lokal biltoki gisa erabiltzen zituztelako eta, ondorioz, berari kalteak eragiten zizkiotelako. Establezimendu horiek behar bezala atonduta egon barik eta beharrezko udal lizentzia izan barik bertan hainbat jarduera gauzatzen zituztela baietsi zuen. Udalarari arazoaren berri eman bazion ere, hark ez zuen inolako neurririk hartu egoerari konponbideren bat aurkitzeko. Geuk gure aldetik informazio-eskaera egin genion udalari, salaketak jaso ondoren zer egin zuen jakiteko eta establezimenduen administrazioa eta hirigintzako baldintzak egokiak ziren egiaztatzeko. Hirigintza-arloko teknikariak txostena igorri zigun eta, horren bidez, jarduera horiek beharrezko udal lizentziarik ez zutelako eta, ahal bezain laster, lokalok ixtea aginduko zutela adierazi zuen. Hala ere, lan asko pilatuta zuten gero, ezinezkoa zen haientzat adostutako neurriak arinago gauzatzea. Instalazioak zaintzea eta kontrolatzea zaila izan litekeela badakigula adierazi genion udalari, baina agerikoa zela lokal horien jarduera alde tekniko eta juridikotik arautzen ez bazen, bizilagunei kalte larriak sor diezazkiekeela. Gainera, jardueren funtzionamendu okerrak sor ditzakeen ingurumeneko kalteak eta erasoak luzaro ez mantentzeko berme bakarria udalak modu egokian esku hartzea zela azpimarratu genion. Azkenik, Hirigintza Arloko arduradunak establezimenduok ixtea eta ateei giltza ematea agindu zutela eta Udaltzaingoa lokal horiek prezintatzeko eskatu zitela jakinarazi zigun. Pasaiako herritarrak kexan adierazi zigun arazoa konpondu eta gero, gure lana amaitutzat jo genuen.

ESKOLA GARRAIO HOBEA ETA SEGURUAGOA LORTZEKO NEURRIAK HARTU BEHAR DIRA

Lehen hezkuntzako ikastetxe bateko Eskola Kontseiluak eta Segurtasun eta Higiene Batzordeak kexa bat jakinarazi zigun eskola garraioaren segurtasun-baldintzen inguruan. Zehazkiago esateko, Haur Hezkuntzako ikasle batek izandako istripua aipatzen zuten; izan ere, gidariak autobusa balaztatzearen ondorioz, neskatoak lesio batzuk izan zituen. Zerbitzu hori erabiltzen duten ikasleentzat segurtasun-uhala derrigorrezkoa izatea proposatu zuten, halako istripurik gerta ez dadin. Ararteko erakundeak ere eskola garraioa baldintzarik

onenetan egiteko ardura hartzen du bere gain; hala ere, aplikagarri den araudia oinarritzat hartu behar da kasua aztertzerakoan. Ildo horretan, legerian ezarritakoaren arabera, ez da derrigorrezkoa segurtasun-uhalak jartzea, jesarleku jakin batzuetan izan ezik. Gainera, gure informazio-eskaerari erantzunez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak taldeko garraioetan adingabeentzako segurtasun-sistema homologaturik ez dela adierazi zuen; ondorioz, zerbitzua kontratatatzeko prozesuetan ezin da segurtasun-uhalik exijitu. Horretaz gain, sail horrek azpimarratu zuen arauen aldetik neurri nahikorik ez badago ere, hark garraioaren segurtasuna hobetu nahi izan duela eta, horretarako, autobus batean doazen adingabeen kopurua murrizteko neurriak hartu dituela. Nolanahi ere, irregulartasunik antzeman ez den arren, jarraipen berezia egitea beharrezkotzat jo dugu, indarreko araudiak mugatutako esparruaren barruan, eskola garraio hobea eta seguruagoa lortzeko beharrezko neurri guztiak ezar daitezkeen.



(Deiaren argazkia)



(Diario Vascoren argazkia)



(Deiaren argazkia)

PIROTEKNI A PRODUKTUAK KALEZ KALE SALTZEKO DEBEKUA

Asparrena herriko (Araba) lagun batek Ararteko erakundera jo zuen herriko jaietan petardoak saldu zirelako kalean jarritako postuetan eta horrekin ados ez zegoela adierazteko. Kalez kaleko salmenta arautzen duen indarreko legeriaren arabera, udalei dagokie higie, osasun eta segurtasun arauak betetzen direla bermatzea. Gainera, Lehergailuei buruzko Araudiak honelako gai piroteknikoak kalez kale saltzea debekatzen du, beren beregi. Hortaz, Ararteko erakundeak idazkia bidali zion Udalari legeria eta legeriak berak agintzen dituen betebeharrak gogorarazteko. Asparrenako Udalak kaleko postuetan petardoak saltzea debekatu zuela herrian eta, nolahi ere, etorkizunean beroriek ez saltzeko beharrezko neurriak hartuko zituztela adierazi zuen. Hala ere, Udaltzaingorik ez dutenez gero, debeku hori beteko dela bermatzea haien zaindaria dela baietsi zuen. Herrizaingo Sailari Ertzaintza joateko eska diezaiokeela gogoratu genion eta piroteknia produktuak erabiltzeko eta manipulatzeko berekin duen arriskua eta sortzen dituzten zarata arazoak aditzera eman genituen. Ararteko erakundeak egin zezakeen guztia egin eta gero, gure egitekoak bukatutzat jo genituen kexa jarri zuenari gure aldetik lortutakoa jakinarazi ondoren.

ETXEBIZITZA BATEK BIZIGARRITASUN BALDINTZAK GALDU DITU URBANIZAZIO OBREN ONDORIOZ

Pertsona batek Barakaldon RENFEko trenbidea estaltzeko proiektuaren ondorioz haren etxebizitzan jasango zituen kalteak jakinarazi zizkigun. Zehatz esateko, beheko solairu batean du etxea eta urbanizazioaren sestra azpian geratuko zen. Burutzapen-proiektuak honakoa aurreikusi zuen: lau etxebizitzatoko leihoak ezin izango ziren erabili eta etxebizitzok ezin zuten bizitegi-erabilera izan gelez ez zetelako aireztapen naturalik izango. Bilbao Ría 2000 erakundeak aurkeztu zuen trenbidea estaltzeko proiektua eta ukitutako ondasunak eta eskubideak desjabetzeko fasean zegoen orduan. Hala eta guztiz ere, obrak amaitzerakoan, etxebizitzak oinarritzko bizigarritasun baldintzak galduko zituen. Horregatik, erreklamazio-egileak etxebizitza osoa desjabetzea proposatu zion Udalari eta era berean, bizileku berria izateko eskubidea eskatu zion. Ararteko erakundeak Barakaldoko Udalari zein Bilbao Ría 2000

sozietate publikoari argibideak eskatu zizkien gaiaren inguruan zuten iritzia jakiteko eta, zehatzago, erreklamazio-egilearen etxebizitza desjabetzeko aukeraren aurrean eta, hala badagokio, bizileku berria izateko eskubidearen aurrean zuten erantzuna jakiteko. Bilbao Ría 2000 erakundeak txostena igorri zigun trenbidea estaltzeko proiektuaren arazoak eta kaltetutako pertsonekin egindako kudeaketak zehatzuz. Ondoren, Barakaldoko Udalak erreklamazio-egileak eta Bilbao Ría 2000 erakundeak hartutako desjabetze akordioari buruzko informazioa bidali zigun: trenbidea estaltzeko proiektuak ez ditu haren etxeko leihoak kenduko eta barruko taxuketan ez da inolako aldakuntzarik eragingo. Nolanahi ere, aurreikusitako kalteen ordainari buruzko akordioa hartu zuten eta babes ofizialeko etxebizitza bat izango zuela hitzeman zuten. Hortaz, gure lana amaitutzat jo genuen.



(Diario Vascoren argazkia)

GAUEKO GARRAIO PUBLIKOAK ZATIKIZKO MONETAZ ORDAINTZEA

Bi emakumek Bilbo-Sodupe ibilbidea egiten duen Bizkaibus lineak begirunerik gabeko tratua eman ziela salatu zuten; izan ere, segurtasunagatik, gidariak ez zien utzi bidaia monetaz ordaintzen eta autobusetik jaitsarazi zituen. Gaueko zerbitzua txartelen bidez bakarrik ordain daitekeelako gertatu zen hori. Salaketa-egileek beste aukerarik izan ez zuten, bidaia taxiz egin behar izan zuten eta Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailari kalte-ordaina eskatu zioten. Aipatutako Sailak ez zien zenbatekoa ordaindu. Behin kexa onartuta, informazio-eskaera egin genuen eta berori aztertu ondoren, erakunde honek jakinarazi zion joan-etorrien zenbatekoa esku-dirutan ez ordaintzeko txartelen erabilera bultzatzea bidezkoa zen arren, nolana ere, ezinezkoa zela legezko monetaz egindako ordainketa batek baliorik ez izatea. Hori dela eta, Herri

Lan eta Garraio Sailari bi gomendio egin genizkion: alde batetik, bi emakume kaltetuei ordaintzea, eta, bestetik, beharrezko neurriak hartzea gaueko zerbitzu bereziak legezko monetaz ordaindu ahal izateko. Sailak egintza horiek gertatu egin zirela onartu zuen, baina ez zituen erreklamazioak aintzat hartu, bada, aintzat hartuz gero, Bizkaibus zerbitzuak galera ekonomikoa izango baitzuen. Bestalde batetik, gaueko zerbitzu berezietan legezko moneta onartuz gero, beharbada zerbitzu horiek kendu beharko lirakeela adierazi zigun. Hala ere, erakunde hau ez dator bat alegazio horiekin, zerbitzu publiko batek legezko moneta onartu beharra daukalako bidaia ordaintzeko, zerbitzua egunez edo gauez ematen den kontuan izan gabe, eta, hain zuzen, horixe jakinarazi genion, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailari.

UDAL BATEK PEOLAN POSTUAK BETETZEKO GIZONEZKOEI EMAN ZIEN LEHENTASUNA



(El Correoren argazkia)

Gorlizko Udalak peoi lanpostuak betetzeko gizonetzko lehentasuna ematea erabaki zuela jakin genuen komunikabideen bidez. Albisteen arabera, udalak hautagaien sexua aintzat hartuz lanak banatzea erabaki zuela zirudien, horrela bada, emakumezkoek aukera handiagoak izango zituzten garbiketa-lanetako edota lorezaintzako postuak lortzeko, eta gizonetzkoek, berriz, peoitaldean sartzeko lehentasuna izango zuten, esfortzu fisiko handiagoa behar izaten baita postu horietan. Udaleko obra-brigadan sortzen diren aldi baterako beharrei erantzuteko lan-poltsak eratu ohi dira eta aipatutako erabakiak lan-poltsa horietarako hautagaiei eragiten zien, hain zuzen ere. Esandakoa egia izatekotan, jokabide sexista baten aurrean geunden, enplegu publikoak lortzeko prozesua eraundu behar duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioekin bat ez zetorren jokabidearen aurrean, alegia. Hori dela eta, ofiziozko espedientea ireki genuen eta alkateari txostena eskatu genion Udalak halako aldi baterako beharrei erantzuteko erabiltzen dituen irizpideak zein diren azal zituzten, sexuagatik diskriminazio posiblearen aurrean sortutako salaketari arreta berezia jarri. Gorlizko alkateak akatsa onartu eta bere gain hartu zuen. Halaber, etorkizuneko ordezkapenentarako zerrendak kudeatzeko sisteman egin beharreko aldaketak egiteko asmoa zutela adierazi zuen, ofizioz jardutea eragin zigun egoera, hain zuzen ere, ez dadin berriro gertatu.



(El Correoren argazkia)

IRISGARRITASUN ARAZOAK ZENBAIT HAUTESLEKUTAN

Ezintasunen bat duten pertsonen elkarte batek kexa bat aurkeztu zuen Ararteko erakundearen Pasaiako eta Oiartzuneko udal-mugarteetako zenbait hauteslekutan irisgarritasun arazoak zeudelako. Pasaiako Udalarari informazio-eskaera egin ondoren, hautesleketako batean, udaleko zerbitzu teknikoek arazoari konponbideren bat emateko hauteskunde

egunerako behin-behineko egurrezko arrapalak jarriko zituztela adierazi zigun. Besteari dagokionez, berriz, hauteslekuak zegoen moduan utzi behar zenez gero, udaletxeko beheko solairua horretarako erabiltzea egokia zen aztertzen ari ziren. Teknikariak proposatutako behin-behineko neurria nahikoa ez zela eta, teknikoki bideragarria izatekotan, hoberena

arkitektura-oztopoak kentzea litzatekeela jakinarazi genion Udalarari. Oiartzungo Udalak, bere aldetik, adierazi egin zigun hautesleku bakar batek zituela irisgarritasun-arazoak eta Osakidetzari eskaera eginda zutela anbulatorio bat momentuz hautesleku gisa erabiltzeko. Euskal Osasun Zerbitzuak baimena eman zion horretarako.



(Diario Vascoren argazkia)

ZUMAIAN PORTURATUTA ZEGOEN DRAGATZE-ONTZI BATEK ZARATA ARAZOAK SORTU ZITUEN

Zumaiaiko herritar batek erreklamazioa egin zuen Ararteko erakundearen, eta horren bidez, haren etxetik hurbil porturatuta zegoen dragatze-ontzi batek gaur egaritzen zituen argi-sorgailuen zaratak berarentzat arazo zirela salatu zuen. Zumaiaiko Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Portuen Lurralde

Zerbitzuarekin harremanetan jarri ginen eta, egin beharrekoak egin eta gero, itsasontzia gaur egaritzeko sorgailuak erabiltzea beharrezkoa zela egiaztatu genuen, hura porturatuta zegoen lekutik ezinezkoa zelako portuko argindarraren zerbitzu orokorrari heltzea. Era berean, inguru horretako

bizilagunei sortzen ari zizkieten eragozpenak egiaztatu ondoren, Portuen Lurralde Zerbitzuak ontziari porturatzeke beste leku bat emango ziola hitzeman zuen lurreko elektrizitateari heldu ahal izateko eta, horrela bada, argi-sorgailu zaratatsu horiek erabili behar ez izateko.

HIESa: ESTIGMA ETA DISKRIMINAZIOA ERAGITEN DITUEN ARAZO BERRIA

Hiesaren aurkako zenbait elkartetan HIESa duten pertsonen gaur egungo egoera azaldu diote Ararteko erakundeari. Tratamenduak emaitza onak ematen ari badira ere, gaixoek tratamendu horiek eragindako bigarren mailako ondorioei egin behar diete aurre, besteak beste, deformazioei. Lagun hauek jasaten duten estigmatizazioa, kirurgia estetikoko laguntzetara iristeko bidea errazteko arrazoia izan daiteke. HIESa duten pertsonen beste eskaeretakoa bat honako hau da: laguntza bidezko ugalketa tratamenduak jasotzea, esperma garbituz, birus-eramaileak gizonetakoak direnean. Sistema publikoko

osasu-zerbitzuetan esperma garbitzeko teknika horren erabilpen falta azaltzeko, zenbait datu baliatzen dira esaterako, transmisiorik eza fidagarritasun osoz ez bermatzea. Datu hori onartuta ere, bada kontuan hartu beharko litzatekeen beste zertzelada bat: alegia, finantzaketarik ezaren ondorioz, bikote askok, agian, (eta gertatuko da ziur aski) esperma-garbitzearen tratamenduak bermatzen duen transmisio ezaren portzentaje altuari inolako onurarik atera gabe izango dituztela haurrak. Eskuera horiek biak, alde batetik kirurgia estetikoko laguntzetara iristeko aukerarenak eta bestetik

ugalkortasun tratamenduetako teknikenak, gaixo talde horrek bizi dituen egoeretakoa batzuk islatzen dituzte. HIESaren pandemiatik datorren errealitateko elementu ezberdin horiek kontuan izanik, Ararteko erakundeak herri-aginteen erantzukizuna bultzatu nahi du material profilaktikoak erabiltzeari buruzko prebentzio eta informazio kanpainak indar ditzaten eta HIESa duten pertsonen inguruan askotan izaten diren estigma- eta diskriminazio-harresiak bota daitezen, aldi berean pertsona horiekin elkartasun-harremanak sendotzen direla.

ERTZAINTZAK EZ ZUEN AGIRIRIK GABEKO EMAKUME ATZERRITAR BATEAN LAPURRETA-SALAKETA GAUZATU KOMISARIA BATEAN

Aljeriar batek erakundera jo zuen Ertzaintzaren komisaria batean eman zioten tratua kezkatza; izan ere, emakumea bertara joan zen haren poltsa eta barruan zeramatzen gauza pertsonalak lapurtu zizkiotela salatzeke asmoz. Aljeriako pasaportearen lapurtu zioten gauzetako bat, berak zuen nortasun-agiri bakarra, hain zuzen ere. Emakumeak esan zigun berarekin hitz egin zuen ertzainak ez zuela salaketa jaso nahi izan, hark esan zionaren arabera, Ertzaintzak ez duelako horretarako eskumenik, emakumea legez kontrako egoeran

baitzegoen, eta Polizia Kidego Nazionalaren mendekoa den atzerritarrentzako bulegora joatea gomendatu zion. Bulego horretan ez zioten salaketa jaso baina ez hori bakarrik, ezpada atxilotu egin zuten, hemen legez kontra egoteagatik bera egozteko espediente bat irekitzeko. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari informazio-eskaera egin genion Ertzaintzaren jarduteko modua azal diezaguten. Ertzain hark Ertzaintzaren barruan indarrean dauden polizia bulegoetan sartzeko arau orokorrak bete besterik ez zuela egin jakinarazi zigun Herrizaingo

Sailak, hau da, ertzain-etxe batean sartu nahi duen pertsonak bere datuak eman behar dituela agintzen du arautegiak. Horretaz gain, aipatutako araua alde batera utzita, horrelako kasuetan ertzain-etxe batetik bestera jarduteko irizpide batasunik ez dagoela adierazi zigun. Herrizaingo Sailak arau berria eman du dagoeneko horri buruz, jarduteko irizpide bateratuak ezarri. Bestalde, herri-defendatzaileari Polizia Nazionalaren jarduna igorri genion, hari baitagokio horren kontrola. Egozteko espediente artxibaturik geratu zen azkenean.

GUTXIENeko DIRU-SARRERAK EGIAZTATU BEHAR DIRA ETXEBIZITZA BABESTUAK ERRENTAN HARTU AHAL IZATEKO

Baliabide ekonomiko eskasak izatearen ondorioz etxebizitza libre bat erosi ezin duten kolektiboek laguntzen saiatzen dira herri-agintek. Herri-erakundeek aldetik egiten diren ahaleginen kontrola bermatzeko, zenbait betekizun ezarrita daude, esate baterako, gutxieneko diru-sarrerak justifikatu beharra. Gure iritzi, babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko ereduak gutxieneko diru-sarrerak exijitzaegatik etxea eskuratu duten pertsonen kaudimena bermatzen ote duen zalantza jar daiteke. Diru-sarrerak kontuan hartzen direnetik eta kontratua sinatu behar den arte, bat ez etortzeak gertatzen direla uste dugu. Horretaz gain, gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzerakoan lan-errentak oinarritzat hartzen dira funtsean eta ez, ordea, beste diru-sarrera batzuk, eskatzailearen fondoak edo bestelako berme-sistema batzuk. Azkenik, araudiak berak betekizun hori kolektibo jakin batzuentzat alde batera uztea ezarri du, babes ofizialeko etxebizitzak eskuratu ahal izan ditzaten haien kaudimena kontuan izan barik. Hortaz, gure ustez, babes ofizialeko etxebizitza bat errentan hartu ahal izateko, ez da beharrezkoa gutxieneko diru-sarrera batzuk aldeztu aurretik egiaztatzea, arrazoi nahikoak baitaude horretarako; dena dela, beste era bateko baliabideak ezar daitezke kaudimena egiaztatzeko. Horregatik, gure ustez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurri buruzko Dekretuan xedatutakoa aldatu beharko luke. Edonola ere, kontratua sinatzen den unean exijitu beharko litzateke etxebizitza errentan hartuko duen pertsona kaudimenduna izatea.

ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN TXAKURRAK EDUKITZEKO AUKERAREN AURREAN UDALAK DUEN ESKUMENA

Txakur arrisksutzat jotzen direnak lotu barik ibiltzen direnean, jendea urduritu eta beldurtu egiten da. Horrelako animaliak edukitzeko aukera lege bidez araututa dago, eta txakurren jabeen betebeharrak ezarrita daude, baita betebeharrak horiek bete ezean aplikatu beharreko zehapen araubidea ere. Legeak honakoa agintzen du: txakurrak erregistratuta eta behar bezala identifikatuta egon behar du eta txakurren jabeek horiek izateko udal baimena izan behar dute, hirugarrenei sor lekizkiekeen kalte-galerak ordaintzeko erantzukizun zibileko aseguru gauzatu aurretik. Horretaz gain, zenbait segurtasun-neurri ezarrita daude, esate baterako, leku publikoetan derrigorrezkoa da txakurra uhal batez loturik eta muturreko egokia jarrita

edukitzea edo eramatea, eta leku pribatuetan ere txakurra lotuta edukitzea derrigorrezkoa da, itxitako leku egokia egon ezan. Tokiko administrazioei dagokie arlo honetako legeak betetzen direla zaintzea eta kontrolatzea, eta, era berean, berak du zehatzeko ahalmena. Hortaz, guztien interesak bateratzeko helburuarekin, udalek animalien jabeek haien betebeharrak jakinarazi beharko litzateke eta beharrezko baimenak eskatzeko agindeia egin beharko litzateke, eta horiek guztiak bete ezan zigorra izango luketela ohartarazi ere bai. Gainera, txakur horien jabeek aldarrikatzen dutenari jarraituz, tokiko erakundeek jolas edo aisiarako eremuak prestatu beharko litzateke, eskaera hori bat baitator animaliak babesteko legeriarekin.

HIRIGINTZAKO ARAZO LARRI BATI AURRE EGIN BEHARRA: BALKOIAK IXTEA

Edozein hirigunetan egon badaude inolako irizpiderik eta jarduera bateraturik gabe itxi dituzten balkoiak. Balkoi gehienak baimen barik itxi dira eta, horretaz gain, ezin dira legezatu, udal plangintzetan ez baitira aurreikusi. Kaltetutako batzuek gai honen inguruan sortutako zenbait arazo aurkeztu dizkigute erakunde honetan. Kasu batzuetan udalak ez duelako ezer egin legeak betearazteko eta balkoiak legez itxi direnean ez duelako itxiera hori kentzera behartu, eta beste kasu batzuetan udalaren jarduera diskriminatzailetzat jotzen dutelako salaketa jakin baten ondorioz itxiera kentzera behartzerakoan. Hortaz, udalek udalerriaren

errealitatearen azterketa zehatza gauzatu eta gero, egoera honi aurre egiteko dituzten erregulazio-tresnez baliatu behar dutela deritzogu. Aipatutako azterketa horretan balkoiak zein kasutan itxi ahal izango liratekeen mugatu beharko litzatekeela uste dugu, baita horretarako baldintzak eta epeak, jabeekideen komunitateak epean inguruan hartu beharreko konpromisoak eta ordenaziozko kanpoko itxierak erregulartzeko aukerak ezarri ere. Horretaz gain, udalaren Ikuskaritza Zerbitzuaren jarduera-plana osatu beharko litzateke instalazio berriak legez kontra ixten ez direla kontrola dezaten ofizioz.

INMIGRANTEEN OSASUN-ARLOKO ESKARIEI ERANTZUTEA

Osasunerako eskubidea biztanleria osoari aplikatu behar zaion oinarriko giza eskubide unibertsala da. Ordenamendu juridikoak inmigranteen osasunerako eskubidearen zenbaterainokoa finkatzen du, baina ezin dugu ahaztu inmigratioak atxikita dituen beste arazo batzuk, hala nola, hizkuntza ezberdintasuna, kultura, elikadura, eta abar. Atzerritarrek osasun-sisteman sar daitezten lortzeko eta haien premiei

erantzuteko alderdi asko kontuan hartu beharrekoak dira. Legezko erreferentia ahaztu barik, hain zuzen ere, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritarren gizartertzeari buruzko Lege organikoa, herri-aginteen jarduerak biztanle horiek osasun-sisteman sartzera bideratu behar dute. Profesionalek inmigranteen berriazko premiei aurre egiteko trebatuta egon behar dute eta

baliabide materialak erabili behar dira hizkuntza-oztopoak gainditzen laguntzeko (ez bakarrik interpreteak baita haien laguntza handiagoa eskaintzea ere, haien berezitasunengatik). Izan ere, bi alderdi horiek oinarri-oinarrikoak dira inmigranteek osasun-zerbitzuetan eta gaixotasunei aurre hartzeko programetan parte har dezaten, nahi izango genukeen bezala.

EAEko ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MENDEKO POLIZIA KIDEGOEK JARRERA KODEEZ HORNTU BEHAR DUTE, IMMIGRAZIOARI BURUZ EMATEN DUTEN INFORMAZIOAREN TRATAMENDUARI DAGOKIONEZ

Etorquinekin lan egiten duen elkarte batek kezkatuta zegoela adierazi zigun, zenbait polizi erakundetatik delituen berri ematen dutenean, ustezko delitugileak atzerritarrak badira, zein nazionalitate duten aipatu ohi delako. Aipu horiekin immigrazioaren ikuspegi ezkorra zabaltzea eta pertsona horiei buruzko aurreiritziak sendotzea baino ez da lortzen. Elkarrekin egiaztatu zuenez, gainera, hedabideetan poliziengandik heltzen zaizkien prentsa oharrek hitzez hitz jasotzeko joera dute. Elkarrekin zera eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari: Ertzaintzako prentsa zerbitzuak bere informazioetan ez ezala nazionalitateari aipa, albiste oro har ulertzeko ezinbestekoa ez bazen behintzat; hala ere, ez zuen inolako erantzunik jaso. Herrizaingo Sailera eta hiru hiriburuetako udaletara jo genuen, laguntza eske, eta Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluak 2000n Etorquinekin Gizarteratzeko Foroan onetsi zuen estilo liburuaren kopia bana helarazi genien,

polizia agintariek jarraitu beharreko jokabidearen oinarriko erreferente gisa. Eusko Legebiltzarrari 1998an aurkeztutako ohiko txostenean Ertzaintzari eta Bilboko Udaltzaingoari egindako gomendioaren kopia bat ere bidali genien. Ertzaintzaren prentsa oharrek eta hedabideetan ageri ziren albisteak kontrastatzean, ohartu ginen zenbaitetan, poliziaren prentsa-oharrek idatzi ziren bezala, hitzez hitz jasotzen zirela. Ararteko erakundeak ez dauka eskumenik hedabideen alorrean esku hartzeko, baina polizia-agintariek arlo horretan egiten duten lanak hedabideen arloan ere eragina izango duela uste dugu. Beraz, Ertzaintzak eta EAEko udaltzaingoez, gure iritziz, informazio iturri direla jabetu eta immigrazioari buruzko informazioaren tratamendurako beren jokabide kodeak prestatu beharko lituzkete, Etorquinekin Gizarteratzeko Euskal Foroaren jarraibideetan oinarrituz.

EZINTASUNEN BAT DUTEN PERTSONAK TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGIATIK BABESTEKO TEORIA ETA PRAKTIKA, TOKIKO ZERGA-ORDAINKETAN EGIN BERRIDENALDAKETAREN ONDOREN



(Deiaren argazkia)

Ezintasunen bat duten pertsonen berdintasuna lortzeko nahitaezkoa da hainbat neurri hartzea, hala nola, zerga-arloan zenbait abantaila berezi izan ditzatela. Egin berri den aldaketari esker Tokiko ogasunak arautzen dituen Legea hobetu egin da eta Legearen aplikazio-eremua handitu, ezinduek Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan dituzten salbuespenei dagokienez. Salbuespena ez da gehiago lotu ibilgailuaren ahalmen fiskalarekin, ezta ezinduek gidatu ahal izateko egin beharreko moldaketa bereziarekin ere; izan ere, salbuespena egin dira minusbaliatuen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko diren ibilgailuak; ibilgailua ezinduek berak zein beste inork gidatzen duen kontuan hartu gabe. Araudiak dienez, TMIZn ezgaitasunezko salbuespena lortzeko, baldintza hauek bete behar dira: % 33 edo gehiagoko ezgaitasuna izatea, salbuespen-eskatzaila ibilgailuaren jabe izatea eta ibilgailua berak bakarrik erabiltzeko izatea. Azkeneko baldintza hori eskatzeak arazoak sortu ditu interpretatzerakoan, zenbait udalek salbuespena eman aurretik betearazten baitute. Gure ustez, ordea, frogatu daitezkeen baldintza bakarrak ezgaitasun maila eta ibilgailuaren jabetza soilik dira, eta “erabilera eskusiboa” salbuespena onartu eta gero baino ezin daiteke eskatu. Beraz, ukitutako udalei gomendatzen diegu irizpide horiek artez ditzatela eta salbuespena lege babesik ez duten murrizketarik ezarri gabe aplikatu dezatela. Halaber, TMIZ arautzeko beren Arauen idazketa aldaraztea, ibilgailuaren “erabilera eskusiboaren” baldintzari buruzko malgutasunaren ideia espresuki erantzea eta interpretazioa zuzen mugatzea komeni zaien pentsa dezatela iradoki diegu.

HAUR ESKOLEN FINANTZAKETA ETA KUOTAK HOMOGENEIZATU BEHARRA

Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakundearen Arterako Planak EAEn zerotik hiru urterako haur-eskolak arautzea ekarri du. Planean Eusko Jaurlaritzaren hainbat konpromiso sartzen dira: 0-2 urteko tartean plazaren kostuaren % 60raino finantzatzea, publiko ala pribatu diren begiratu barik, eta 2-3 urteko tartean, publikoak ez diren etan kostuaren % 60raino finantzatzea eta, publikoak direnean, kostuaren % 100. Aldi berean, Planak bere egiten du gurasoei kuotetan homogenotasuna eskaintzeko helburua, abiapuntutzat hartzen den oraingo heterogenotasun handiko egoera ez bezala. Administrazioak finantzatzeko egin dituen ahaleginek ez dute, ordea, homogenotasun handiagorik ekarri. Gure adingabeentzat benetan aukera berdintasuna bultzatzea lortuko badugu, finantzaketa eta laguntza ekonomikoa zentzuz planifikatu beharko ditugu. Gainera, zerbitzu horien doakotasuna lortu arte, ezin ditugu alde batera utzi beste neurri batzuk,

halako zerbitzuak lortzeko denentzako aukera berak ahalbidetuko dituztenak, eta, edonola, diru-baliabiderik gutxieneko familientzat doakoak izan daitezkeen bultzatu beharko dugu. Horregatik, herri-administrazio arduradunei, oro har, eta batez ere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari hauxe gomendatzen diegu:

- Zehatz dezatela zelan lortu nahi duten kuotak homogeneoagoak izatea.
- Haur-eskolen araudian aurreikusitako finantzabide desberdinez baliatu daitezela (lankidetzak itunak...), helburu hori benetan bete dadin.
- Titulartasun desberdineko eskaintzak batera gertatzearen ondorioz kuotak desberdinak izaten segitzen duten bitartean, koordinatzeko behar diren neurriak ezarri ditzatela (irizpideak eta onarpen prozesuak bateratzea, eta abar), zerotik hiru urtera bitarteko adingabeentzako zerbitzu horiek eskuratzeko, denek aukera berak izango dituztela ziurtatu eta bermatzeko.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI ERAKUNDEEK EMANDAKO ERANTZUNA EAEn

Emakumezkoen aurkako indarkeriak giza eskubideak larriki urratzen ditu eta, gainera, gure gizartean oso hedatuta dago. Urte askotan, errealitate hau ezkutatu egin da, baina azken urteotan gai horrekiko gizarreak duen sentiberatasuna handiagoa da. Txosten berezi honek helburu hau du: emakumezkoen beharrei erakundeek emandako erantzuna balioztatzea alegia, behar horiei zenbateraino egokitzen zaien eta, ondorioz, hobetzeko proposamenak definitzea genero-indarkeriaren egoerei aurre egiteko administrazio-egituren eta baliabide berezien ikuspuntutik: gizarreak eta laguntza psikologikoa, orientabide juridikoa, aldi baterako ostatua, poliziaren babesa... Emakumezkoa izateagatik beraren aurka egindako indarkeria mota guztiak genero-indarkeriatzat jotzen dira. Munduan azalpen ugari eta anitzak ditu: abortu selektibotik edo neskak hiltzetik hasita, emakumezkoak salerosi arte; alde batera utzi gabe emakumezkoaren ebaketa genitalak, sexu-esklabotasuna edota etxeko

esklabotasuna... Emakumezkoari giza eskubide batzuk besteak baino gehiago urratzen zaizkio gure kultur eta gizareremuan. Urratze horien artean, etxeko indarkeria deitzen zaio bizikidetasun-harremanaren esparruan nahiz eta harremana bukatua izan emakumezkoek jasaten dituen erasoei, haien segurtasun fisikoa, psikikoa edota sexuala arriskuan jartzen dutenei. Beraz, txosten honek gure gizareremuan emakumezkoaren aurka gauzatzen den indarkeriaren zati bat aztertu du, erlazio afektiboen esparruan sortzen dena, hain zuzen ere. Baina hemen ez dugu gizareremuko hori aztertuko, baizik eta erakundeek ematen dioten erantzuna. Une honetan erakunde publikoek arreta eta erantzuna batik bat indarkeria mota horri ematen diotelako hautatu da hori. Beste modu batera esanda, hasieran, sexu-indarkeria jasan duen edozein emakumezkoak zerbitzuetara jotzeko aukera badu ere, gizon batekin bizi direnean edo bizi izan direnean tratu txarrak jasan dituzten emakumezkoak bakarrik joaten

dira. Emakumezkoek ezezagunen sexu-erasoak jasaten dituztenean, oso gutxitan eta zerbitzu jakin batzuetara jotzen dute, batez ere laguntza psikologikoaren edota juridikoaren bila. Txosten honen aztergaia arrazoiek baino gehiago emakumezkoaren aurkako indarkeria ondorioek ostatua eskatzea, laguntza psikologikoa, etab. zehazten dutela argitu dugu. Ez da ahaztu behar erakundeek tratu txarrei emandako erantzuna oraindik berri samarra dela eta etengabe aldatuz doala, hobetzea helburu duten ekimen berriak egiten baitira. Txostenak une zehatz baten "argazki finkoa" islatzen du, hain zuzen ere, informazioa bildu zen unekoa (2002. urtea eta 2003ko urtarrila). Gai zehaztetan, azken urteetako (1997-2001 bitarteko) garapena ere eskaintzen du. Baina ezin ditu bere baitan hartu txostena baino geroago sortu diren ekimenak.



(El Correoren argazkia)

ALDERIK KEZKAGARRIENAK

1. Ez dago beharrei eta arazoaren larritasunari doituako erantzun planifikaturik, arreta osorik. Erakunde bakoitzak duen sentiberatasunaren edo ekimenaren baitan daude baliabideak.
2. Ez dago nahikoa datu errealitatea doi-doi ezagutzeko, ez baitago irizpide komunikatuak biltzeko orduan.
3. Laguntza eskaintzeko orduan, alde garrantzitsuak daude toki batzuen eta besteen artean, udalerrri edo lurralde historikoen arabera.
4. Badira aparteko ahultasun-egoeran dauden emakumeen taldeak, baina ez daukate zerbitzu batzuk erabiltzeko aukerarik: emakume toxikomanoak, gaixo mentalak, ezgaituak edo inmigranteak.
5. Ostatzeko baliabide asko ez dira egokiak eta ez dituzte segurtasun baldintzak betetzen.
6. Programak erabiltzeko mugak: horien trabak, kokapena edo horietara iristeko baldintzak.
7. Itxaroteko zerrendak daude zerbitzu jakin batzuk jasotzeko.
8. Koordinazio-bideak ahulak dira edo udalerrian ez dago ekintza koordinatuak gauzatzeko protokolorik.
9. Badira oraindik bete gabeko beharrak, kaltetutako emakumeen balioztapen eta proposamenen arabera. Adibidez, lan merkatuan sartzea edo etxebizitza.
10. Ez dira nahikoa tratu txarrak jasan dituzten emakumeen segurtasuna bermatzeko babes-neurriak.

GOMENDIOAK

Txostenean guztira 29 gomendio egin dira:

- Genero-berdintasunaren ikuspegia politikari guztietan sartzea;
- Genero-indarkeria oso-osorik lantzea;
- Sentsibilizazio-lanak indartzea;
- Adituen trebakuntza hobetzea;
- Irizpideak bateratzea eta datuak sistematizatzea;
- Praktikak ebaluatzea eta adierazle egokiak diseinatzea;
- Arreta-zerbitzu berezien helburua zehaztuz mehatz definitzea;
- Laguntzak bateratzea;
- Zerbitzuen artean koordinazioa hobetzea;
- Etxebizitza eta enplegua lortzeko neurriak edo baliabideak garatzea;
- Ahultasun-egoera berezian dauden emakumezkoen (inmigranteen, minusbaliotasunen bat dutenei, gaixotasun mentalak dituztenei, toxikomani arazoak dituztenei...) laguntza handiagoa eskaintzea;
- Arreta-zerbitzuak deszentralizatzea;
- Aldez aurretik salaketa aurkeztu behar dela dioen baldintza kentzea eta zerbitzuak berehala erabiltzeko aukerak erraztea;
- Itxaroteko zerrendak murriztea;
- Ostatzeko-baliabideen kalitatea dibertsifikatu eta hobetzea;
- Baliabideak gehitzea;
- Bete behar dituzten gutxieneko baldintzak arautzea;
- Tratamenduen gehieneko iraupena malgutzea;
- Zerbitzuak erabiltzaileei hurbiltzea;
- Erasozaileentzako tratamendu-programak indartzea;
- Zerbitzua behar duten pertsonen erabiltzeko erraztasunak ematea;
- Laguntza juridikoa emateko zerbitzu berriaren jarduera egokia bermatzea;
- Hasierako arreta eta lehen unean eskainitako informazioa hobetzea;
- Polizien artean Erakundeen arteko protokoloa hedatzea, prestakuntza erraztea, eta beren jokoari buruzko jarraipena egitea;
- Eraso-arriskua murrizteko, kokapen- eta babes-sistemak garatzea;
- Datuen erregistro- eta babes-sistemak hobetzea;
- Datu-erregistroak hobetu eta bateratzea;
- Larrialdiko gizarte-zerbitzuak indartzea;
- Erakundeen erantzuna arintzea.



(Deiaren argazkia)

ARGITALPENAK



■ *Eusko Legebiltzarrarentzako Txostena*, Arartekoaren aurreko urteko jarduna biltzen duena.

■ Txosten berezia. *Emakumeen kontrako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn*.

■ *Sortuz / Generando* CD ROMa, gure erakundeak Mugarik Gabe GGKEari emandako beka baten emaitza, emakumeen eskubideei buruzko hainbat material didaktiko biltzen dituena.

■ *Gure Eskubideak / Nuestros derechos* argitalpena. Ararteko erakundeak deituta, iazko ikasturtean eskola lanen lehiaketara aurkeztu ziren 644 lanen lagina (idazlanak, marrazkiak, komikiak, saioak....)

■ Giza Eskubideen nazioarteko eguna dela-eta, abenduaren 10ean, Ararteko erakundeak urtero kartel bat ateratzen du, pertsonarik behartsuenen premiez ohartarazi eta sentsibilizatzeko, eta giza eskubideak defendatzen eta babesten aktiboki arituko den gizartearen aurrera egin nahirik. 2004an leloa *Denok desberdinak. Denok errespetagarriak* izan da. Era berean, haurren oinarrizko eskubideak azpimarratzen dituzten egutegiak ere atera dira. Materialok Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxei banatu zaizkie.



JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK

■ Mertxe Agúndez jarduneko Arartekoa Irene Khan Amnesty Internationaleko idazkari nagusiarekin izan zen, Euskal Herrian giza eskubideen esparruan lehenatasuna duten gaiak jorratzeko: emakumeen kontrako indarkeria errotik mozteko, arrazakeriari aurre egiteko edo tortura prebenitzeko neurriak.

■ Mertxe Agúndezek Dolores Villalobos indigena mexikar eta Ricardo Flores Magón – Herri Kontseilu Indigenako kidea hartu zuen Arartekoaren egoitzan. Kontseiluko kideek beren egoeraren berri emateko Europan zehar egindako biraren barruan sartu zen bilera hartan, Villalobosek komunitate indigenetan zelan bizi diren eta zein eskubide-urratze jasaten dituzten jakinarazi zion.



(Mertxe Agúndez Dolores Villalobosekin)

■ Mercedes Gallizo Espetxeetako zuzendari nagusiak jarduneko Arartekoa hartu zuen; Agúndezek EAEko espetxeetan giltzapetuta dagoen jendearen egoera kezka garria dela adierazi zion. Arartekoak gai desberdinak azaldu zizkion, hala nola, hiru espetxeetako egiturazko akatsak, presoek lanari, osasun arretari edo hezkuntzari dagokionez dituzten eskubideak, baita espetxe araudia aplikatzeko zenbait irizpide ere.

■ Ararteko erakundeak EHUko Udako Ikastaroekin elkarlanean jardunaldi bat antolatu zuen *Lana XXI. mendean: etorkizuneko igurikimenak* izenburupean. Gaian adituek bi ponentzian eta mahainguru batean industria osteko garaiko gizartearen zer-nolako enplegua dagoen eta teknologia iraultzak, globalizazioak eta

immigrazioak lanaren ideian nolako eragina izan duten jorratu zuten.

■ Iñigo Lamarca arartekoak Compostelako Santiagon izandako Herri Defendatzaile edo Arartekoen arteko Koordinaziorako XIX. Jardunaldietan parte hartu zuen. Jardunaldietan, batez ere, egungo gizartearen adineko pertsonak nola artatzen diren aztertu zuten, eta adineko pertsonen zaintzaren unibertsalizazioa, zahar-etxeen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak, adineko pertsonak lan esparruan edo adineko pertsonak eta etxebizitza bezalako gaiak eztabaidatu zituzten.

■ Azaroan, Arartekoa Quiton (Ekuador) izan zen, *Giza Eskubideak Sustatu eta Babesteko Nazioarteko Sistemak* izenburu orokorraren pean egin zuten Ombudmanen Federazio Iberoamerikarraren urteroko bilera.

■ Sindic de Greuges-en ordezkari batzuk, Rafael Ribó titularra buru zutela, Arartekoaren egoitzara etorri ziren lan-jardunaldiak egitera, defentsarako bi erakundeek beren esperientzien berri elkarri emateko eta harremanak estutzeko. Ribók eta Lamarcak adingabeen arteko indarkeria eskola esparruan gaiari buruzko txosten berezia elkarrekin egitea erabaki zuten. Bisitan zehar, Síndic-a eta Arartekoa Ibarretxe lehendakariarekin eta Juan María Atutxa Eusko Legebiltzarreko buruarekin egon ziren.



(Rafael Ribó, Iñigo Lamarca, J. J. Ibarretxe)

■ Abenduan, Arartekoa Bilbon izan zen *HIESa: 20 urteko komunikazioa* erakusketa inauguratzen; ezgaituen nazioarteko eguneko ekitaldietan parte hartu zuen, eta Donostian ONCEk

antolatutako argazki lehiaketako sari banaketan ere izan zen.



(Sida, 20 urteko komunikazioa erakusketa)

■ Portugaleteko Udalak antolatu zituen *Berdintasunari buruzko IV. jardunaldietan* parte hartu zuen; Bilbon *Generoaren ondoriozko jazarpenaren eta asilo eskubidearen* gaineko jarduerari amaiera eman zion, eta Kriminologiako Euskal Erakundearen ikasturtea hasteko, haurren eta nerabeen jokabide arau-urratzaileen gaineko inaugurazio-lezioa eman zuen.

■ Iñigo Lamarca Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) argitaratzen duen *Uztaro* aldizkariaren 50 alearen aurkezpenean izan zen, baita Durangoko euskal liburu eta diskoaren azokaren inaugurazioan ere.

■ Arartekoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen sari banaketetan izan zen.

IKERKETA BEKAK

■ 2004an Beatriz Sicilia Oña bekadunak *Los derechos fundamentales en el proyecto de tratado constitucional de la UE* izenburuko ikerketa-lana amaitu du eta aurten argitaratuko da.

■ Jesús Septién Ortizen lana, *La integración de los alumnos inmigrantes en el sistema educativo del País Vasco: derecho a la educación de un colectivo especialmente vulnerable* izenburukoa oso aurreratuta dago.

Lan hau Ararteko erakundeak adjudikatutako ikerketa aplikatuko beka baten emaitza da.

■ Aurreko urteetan adjudikatutako bekei lotutako lanek aurrera jarraitu dute: bata EAEn finkatuta dauden Magrebeko biztanlerian dauden gutxiengoek egun beren kultur bizitza, erlijioa izateko eta beren hizkuntza erabiltzeko dituzten aukerei buruzkoa da, bestea tratamendu aringarrien gainekoa.

ESKOLA-UMEEN BISITAK

Aurreko urteetan bezala, Ararteko erakundeak Gasteizko Udaleko Hezkuntza Arloak antolatzen duen *Informativo Gasteizko* izeneko jardueran lagundu du. Ikastetxe desberdinetako ikasleek aldioro bisitatzen

gaituzte eta, kazetari bihurtuz, gure erakundearen lanarekin zerikusia duten datu eta informazioak biltzen dituzte, ondoren, irriti, telebista programa bat, edo egunkari bat egiteko.

ESKOLA-LANEN LEHIAKETA

Ararteko erakundeak sariak banatu zizkien *Gure Eskubideak / Nuestros derechos* eskola lanen lehenengo lehiaketaren irabazleei. Oso lan desberdinak aurkeztu ziren (gutunak, idazlanak, komikiak, ipuinak, binetak, eta abar). Jorrotutako gaiak ere halakoak ziren: gosea, gerrak, haurren tratu txarrak, pobrezia... Baina arazo horien beste aurpegia ere erakusten zuten: gizarte justu eta solidarioagoa eraikitzeko moduko baloreak, eskuzabaltasuna, desberdinarenganako

errespetua, pertsonarik ahulenak zaintzea... Lehiaketan Euskal Autonomia Erkidegoko 33 ikastetxetako 910 ikaslek hartu zuten parte eta, guztira, 644 lan aurkeztu zituzten. Arartekoak parte-hartzaile guztiei ziurtagiri bat helarazi zien, eta sariak jendaurreko ekitaldi batean banatu ziren. Aurkeztutako lanen lagin bat jada EAeko ikastetxe guztietara bidali den *Gure Eskubideak / Nuestros derechos* argitalpenean bildu da.



(Eskola-lanen lehiaketa)

TORTURARI BURUZ ARARTEKO ERAKUNDEAK EGINDAKO ADIERAZPENA

Torturak eta tratu txarrek betidanik kezkatu izan dute Ararteko erakundea eta horrela adierazi du hainbat ekimenen bidez, hala nola, La prevención y erradicación de los malos tratos en los sistemas democráticos izeneko monografikoa (2003. urtean argitaratutakoa), foro askotan eman dituen gomendioak eta egin dituen adierazpenak edo Eusko Legebiltzarrean egindako agerraldiak. Tortura gorrotagarria da etikaren ikuspuntutik eta giza eskubide oinarrikoenak larriki hausten ditu. Giza eskubideen aldeko kultura sustatzeko helburua duten egintzak areagotzeko eta, hortaz, torturak gure sisteman inola ere lekurik ez izateko ahaleginetan ari garela, abenduaren 21ean, Ararteko erakundeak haren jarrera agertzen duen eta eskumena duten herri-aginteei zuzendutako zenbait proposamen azaltzen dituen dokumentua ezagutzera eman zuen, tortura desagerrarazteko hartu behar diren neurriak, denon artean, aztertzeko. Adierazpenean adierazi den bezala, torturari aurre egiteko lehen baldintza, tortura izan daitekeela onartzea da. Horretaz gain, beharrezkoa da ahal diren prebentziozko neurri guztiak hartzea, hala nola, gune opakuak kentzea, isolatzeari buruzko erregimena kentzea, atxiloketa-aldia grabatzea edo atxilotuen egoeraren mediku-azterketak egitea. Eta tortura eta tratu txarren zeinahi salaketaren aurrean, beharrezkoa da eskumena duten herri-aginteei gertakariak amaierara arte eraginkortasunez, bizkor eta berme handiz ikertzeko asmo sendoa izatea. Nolanahi ere, tortura edo beste tratu anker edo lotsarazleak direla frogatuz gero, herri-aginteei hartu daitezkeen neurri guztiak hartu beharko dituzte biktimei ordain egokia emate aldera. Herri-aginteen konpromisoak iradoki behar duen filosofia honakoa da: zuzenbideko demokrazia-estatu batean, terrorismoaren eta zeinahi delinkuentziaren aurkako borrokak eta pertsonen duintasuna babesteko eskubiderako begiruneak bateragarriak izan behar dute.

¿Necesitas defender tus derechos ?

ACUDE A LA INSTITUCIÓN DEL ARARTEKO

- Para que investigue si la administración pública vasca ha cometido contigo algún abuso, ilegalidad, arbitrariedad, discriminación, error o negligencia.
- Para que el Ayuntamiento, la Diputación o el Gobierno Vasco solucione tu problema si ha actuado incorrectamente.
- Para que recomiende mejoras en beneficio de todos.

¿QUÉ ES ?

- Es la **Defensoría del Pueblo del País Vasco**.
- Es una institución **independiente**.
- Es un servicio **gratuito**.

¿QUÉ HACEMOS ?

- Defendemos a las personas frente a las administraciones públicas vascas.
- Mediamos entre los ciudadanos y la administración.
- Vigilamos y actuamos para corregir situaciones irregulares.
- Proponemos soluciones y promovemos modificaciones de las leyes.
- Informamos de nuestras actuaciones al Parlamento Vasco.

¿CUÁNDO SE DEBE ACUDIR ?

- Cuando tengas un problema con alguna administración o servicio público dependiente de ella.
- Después de haber reclamado ante la administración implicada y no haber obtenido respuesta o solución.
- Y dentro del plazo de un año a partir de ese momento.

¿CUÁNDO NO HAY QUE ACUDIR ?

- Si el conflicto es entre particulares.
- Si el asunto ha sido planteado en vía judicial.

¿CÓMO PRESENTAR LAS QUEJAS ?

- Aportando datos personales (nombre, apellidos, dirección, teléfono), copias de documentos útiles y, cuando sea posible, un escrito con el motivo de la queja.
- Por carta (Prado, 9 - 01005 Vitoria/Gasteiz).
- Por internet desde la web: www.ararteko.net
- O bien, en persona, en cualquiera de las tres oficinas.

¿DÓNDE ACUDIR?

Oficinas de atención directa

En Alava

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Fax: 945 13 51 02

En Bizkaia

Alameda de Mazarredo, 15 - 5º A • 48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09 • Fax: 944 24 18 44

En Gipuzkoa

Avda. de la Libertad, 26 - 4º • 20004 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88 • Fax: 943 42 72 97

Si necesitas más información, llámanos

Zure eskubideak defendatu beharra daukazu ?

ARARTEKORA JO DEZAKEZU

- Euskal administrazio publikoak zurekin gehiegikeriaz, legez kanpo, nahikeriaz, bereizkeriaz, oker edo zabarkeriaz jokatu duen ikertzeko.
- Udalak, Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak oker jokatu badu, zure arazoa konpon dezan.
- Guztion onerako hobekuntzak gomenda ditzan.

ZER DA ARARTEKOA ?

- Euskadiko Herri Defendatzailea da.
- Erakunde **independentea** da.
- Dohain eskaintzen den zerbitzua.

ZER EGITEN DU ARARTEKOA ?

- Pertsonak babestu euskal administrazio publikoen kontra.
- Herritarren eta administrazioaren arteko bitartekari izan.
- Legez kontrako egoerak galeratzeko begiratu eta lan egin.
- Konponbideak proposatu eta legeak aldatzera bultzatu.
- Eusko Legebiltzarrari bere lanaren berri eman.

NOIZ JO ARARTEKORA ?

- Administrazio batekin edo haren menpeko zerbitzu publiko batekin arazoren bat duzunean.
- Zerikusirik duen administrazioaren aurrean erreklamatu ondoren, erantzunik edo konponbiderik lortu ez duzunean.
- Momentu horretatik hasita, urtebeteko epearen barruan.

NOIZ EZ JO ARARTEKORA ?

- Pertsona partikularren arteko auzia denean.
- Gaia auzitara eraman denean.

NOLA EGIN KEXAK ?

- Norberaren datuak (izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia), agiri baliagarrien kopia eta, ahal denean, kexaren arrazoia azaltzen duen idazkia eman.
- Arartekoari zuzendutako gutunaren bidez (Prado, 9 - 01005 Vitoria/Gasteiz).
- Internet bidez: www.ararteko.net
- Norbera hiru bulegoetako batera joanez.

¿NORA JOAN ?

Harrera zuzeneko bulegoak

Araban

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Faxa: 945 13 51 02

Bizkaian

Mazarredo, 15 - 5. A • 48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09 • Faxa: 944 24 18 44

Gipuzkoan

Askatasun hiribidea, 26 - 4gn • 20004 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88 • Faxa: 943 42 72 97

Dei iezaguzu argibide gehiago behar baduzu



ARARTEKO